

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4296

192/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, zeinaren bidez 17.631.227,15 euroko kredituak txertatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2021eko Aurrekontuan, EAEk bere gain hartu dituelako espetze-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuak eskualdatu dizkion eginkizunak eta zerbitzuak.

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak 75. artikuluan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eta/edo zerbitzu berriak eskuratzen baditu Estatutik, eskumen-aldaketaren ondorioz sortutako obligazioak eta likidatuko diren ekonomia-eskubideak betetzeko behar diren kredituak txertatu beharko dira aurrekontu orokorretan; horretarako, Jaurlaritzak eskumen eta/edo zerbitzu berriari dagokion aurrekontua onartu beharko du ekitaldia amaitzeko geratzen den aldirako, Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia azkeneko aldiz Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egun baliodun igaro baino lehen.

2021eko uztailaren 7ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, ekainaren 29ko 447/2021 Errege Dekretua argitaratu da, zeina espetze-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa baita; eta 2021eko uztailaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, uztailaren 6ko 169/2021 Dekretua argitaratu da, zeinaren bidez onartzen baita Transferentzien Batzorde Mistoak 2021eko maiatzaren 10ean arlo horri dagokionez hartutako erabakia.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko uztailaren 27an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Kredituak txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2021eko aurrekontuan.

1.– 17.631.227,15 euroko gastuen egoera-orria onartzen da, betebeharrak hauei aurre egiteko behar den zenbatekoaz osatua: espetze-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatutik hartutako eginkizun edo zerbitzu berrien ondoriozko betebeharrak.

2.– Jasotako eskumen berriari dagokion sarreraren egoera-orria 17.631.227,15 eurokoa da.

3.– Aurreko apartatuetan aipatzen diren sarreraren eta gastuen egoera-orriak 2021eko urriaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arteko aldiari dagozkio. Honela xehatzen dira:

Gastuak: 1413 programa, espetxe-erakundeak.

Euro

120.00	Espetxeetako funtzionarioen ordainsariak	6.235.871,36
123.00	Bitarteko funtzionarioen ordainsariak (zeregin-pilaketak). Bitartekoen programa, 2. fasea	159.655,70
130.00	Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	210.951,29
131.00	Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	73.956,89
160.00	Kotizazio sozialak, entitatearen kontura	2.081.820,46
	1. kapitulua, guztira	8.762.255,70
238.99	Bestelako zerbitzuak	2.603.671,51
	2. kapitulua, guztira	2.603.671,51
413.01	EAEko AP-KSE gisa sailkatutako zuzenbide pribatuko ente publikoentzat. Aukerak. Funtzionamendu-gastuak	572.261,51
453.01	Familientzat. Hirugarren sektoreko bizitoki-baliabideak	1.389.025,00
	4. kapitulua, guztira	1.961.286,51
622.01	Eraikuntzak. Espetxe-instalazioak.	4.154.513,43
	6. kapitulua, guztira	4.154.513,43
713.01	EAEko AP-KSE gisa sailkatutako zuzenbide pribatuko ente publikoentzat. Aukerak. Kapital-eragiketak	129.500,00
	7. kapitulua, guztira	129.500,00
824.01	Epe luzekoak, langileentzat	20.000,00
	8. kapitulua, guztira	20.000,00
	Guztira	17.631.227,15

Sarrerak: 9111 programa, foru-aldundien ekarpenak.

Euro

421.01		2.859.785,05
421.02	Foru-aldundien eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak	5.904.697,97
421.03		8.866.744,13
	Guztira	17.631.227,15

Bigarren artikulua.– Kredituak txertatzearen ondorioak.

1.– Ekonomia eta Ogasun Sailak aurreko artikuluan aipatu diren gastuen eta sarreraren egoera-orriak integratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontuan, dagozkion ondorio juridikoak izan ditzan, eta, bereziki, egoera-orri horien kontabilitatea, exekuzioa eta ondorengo likidazioa egoki gauza daitezen.

2.– Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko eta baliabideak egoki banatzeko metodologia onartu zen 2007-2011 aldirako; bada, metodologia horren 9. artikulua 1. apartatuan xedatzen denarekin bat etorritik, Kupoaren metodologiatik sortutako kenkariei –metodologiaren 2. artikuluan zehaztuak– beste kenkari osagarri bat egingo zaie 2021eko ekitaldian, 17.631.227,15 eurokoa.

3.– Aurreko apartatuan adierazitako metodologiaren 9.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, eta eskualdatze berriak finantzatze aldera, foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ekarpen berezi eta osagarri bat egingo diote 2021eko ekitaldian; 17.631.227,15 euroko ekarpena, hain zuzen ere.

4.– Aurreko 2. eta 3. apartatuetan adierazitako ondorioak egun honetatik aurrera aplikatuko dira: espetxe-arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea eraginkorra den egunetik aurrera.

Hirugarren artikulua.– Kupoan gutxitze bat aldatzearen ondorioak.

1.– Abenduaren 28ko 11/2017 Legeak Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia onartu zuen 2017-2021 bosturterako; bada, metodologia horren 11. artikuluaen Bat eta Bi apartatuen arabera, 2021eko ekitaldiko kupo likidoa benetan gutxitzearen ondoriozko emaitza izango da behin betiko zenbatuko dena dekretu honen aurreko artikuluaen 2. apartatuan aipatutako kenkari osagarrian.

2.– Emaitza hori bera zenbatuko da, halaber, dekretu honen aurreko artikuluaen 3. apartatuan aipatu den ekarpen berezi eta osagarrian.

3.– Baimena ematen zaio Ekonomia eta Osasun Sailari, artikulua honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz egin behar den aldaketa oro egiteko.

Laugarren artikulua.– Legebiltzarrari jakinaraztea.

Ekonomia eta Ogasun Sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziko dio dekretu honetan xedatutakoaren babesean egindako kreditu-kontsignazioa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu honek 2021eko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak; hau da, eskualdatzearen eraginkortasun-egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.